

AURKEZPENA

Lurraldea espazio fisiko soilaz haratago doan zerbaite gehiago da. Gure lurraldea munduan dugun lekua da. Lurra eta bizitza da. Natura da, gorputza da, kultura da, komunitatea da.

Eredu kapitalista neoliberal heteropatriarkal honek, ez da gai lurra alderdi produktibotik harago ikusteko. Enpresa multinazionalak eta konplize diren gobernuek praktika harrapariak ezartzen dituzte, etorkizunean sorraraziko dituzten ondorioak eta lur horietan bizi diren herrien eskubideak batera kontuan hartu gabe. Erdialdeko Amerika harrapakeriaren lurra bilakatu da, enpresa transnazional handiak gezur eta promesa faltsuekin iristen dira, ondasun komunak arpilatzen dituzte eta lekualdatze behartuak eragiten dituzte. Kolonialismo eredu berria baino ez da hori.

Gaitz horien aurrean, hainbat herri eta komunitate erresistentzia prozesuen buru dira eta, hauen artean, Abya Yalako emakumeek oso paper garrantzitsua jokatzen ari dira lurraldearen defentsan. Jardunaldi hauetan El Salvador, Guatemala eta Hondurasko defendatzaileak izango ditugu lagun.

Erresistentzia esperientziak eta estrategiak partekatzea, herrien eta lurraldearen defendatzaileen arteko elkartasuna sustatzea eta mundu onuragarri baterako batzar alternatiboen sorrera bideratzea izango da topagune honen helburu nagusia. Lurra, natura eta izakien arteko harremanak babestuko dituzten bizi-ereduak antolatzea eta aldarrikatzea, gure ondorengoek planeta jasangarri bat har dezaten oinordetzat.

#Defensoras

lumaltik
HERRIAK

Politiki

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetza
Cooperación

17:30

Ongietorria

Zaintzan oinarritutako erresistentzia- prozesuei laguntzen. Cony Carranza

18:00

Harrapakeriaren kontrako erresistentzia esperientziak

Cabañas komunitatea Pacific Rim enpresaren aurka.

Marixela Ramos - Radio Victoria (El Salvador)

Lurra berreskuratu eta komunitate sareak indartu.
Dalila Argueta - Guapinol y Proyecto Basoa (EH)

18:40

Lurraldearen defentsarako alternatiba inklusiboak

Komunikabideak, herri indigenen baliabide.
Yamanik Cholotío – Guatemalako Irrati Komunitarioen Federazioa (Guatemala)

Gure gorputz eta sentipenak, defentsarako lehen lurraldea.

19:20

Migrazioak, lehian dauden lurraldeak

Emakumeen papera Erdialdeko Amerikako migrazio prozesuetan.

Angélica Cárcamo - ARPAS (El Salvador)

Migrazioak, lurraldea eta komunitatea sortzen.
Mujeres Tejiendo Red (Guatemala- EH)

OSASUN NEURRIEI EGOKITUTAKO EDUKIERA.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZENA EMATEKO:

✉ HEZKUNTZA@LUMALTIK.ORG



NAZIOARTEKO TOPAKETA

**DEFENSORAS DEL TERRITORIO:
RESISTENCIAS DESDE ABYA YALA**

MIÉRCOLES 22 DE SEPTIEMBRE

🕒 17:30 ➔ 20:30

📍 OKENDO KULTUR ETXEA DONOSTIA